

Oposizioa eta lehiaketa

Ez dakit zergatik geratu zitzaidan iltzatuta kontakizun hura. 16 bat urte izango nituen institutuko egun hartan. Literaturako irakasle genuen Kristina Falanganek kontatu zigun, ama hil zitzaien egunean, Bilboko erdialdeko bere auzoan ogia eroatera jaitsi beharra izan zuela, betiko auzoko okindegira, hain zuzen ere. Kristinak azaldu zigun nolako inpaktua sortu zion ohiko kale-bizitzak zein egunerokoaren pisuak beretzat bizitzako egun gogorrenetakoa zen hartantxe. *Kaixo guapa, zer behar duzu, betikoa?* Eta berak ezin gainetik erantzi ama galdu izanaren herdoila; ezin ezkondu ohikoa eta galera liminala. Ez dut gogoratzen zein izan zen kontaketa horren testuingurua, baina, agian, berak transmititu zigun emozioagatik-edo, ez dut ahaztu ordutik hona ia 40 urte igaro diren arren.

Pasarte hori gogorarazi dit buruak Azurmendi hil ondorengo lane-gunean. Bulegora sartu eta denak egunerokoari erantzuten dio, inor gutxik aipatzen du nor galdu duen gure herriak. Txosten, bilera, telefono deiek betetzen dute lanaldia, eta euskal idazle baten heriotzak hedabideen azaletan ez du nahikoa indar egunerokoa galgatzeko. Euskararen normalizazioaz dihardugunok ere jabetzen ote gara zein oinarri jarri dituen Azurmendik gure euskara teknikari lanerako? Sintomatikoa iruditu zait goizeko bilera eta elkarriketetan Azurmendiren lanik ez aipatzea. Non, zein lantokitan, ekarri zen dolua uztailaren 2an? Nork jo zuen idazlearen testuetara heriotzaren biharamunean? Ez zait kontu hutsala iruditzen.

Euskararen sustapen profesionalak duen alderdi teknikoa alderdi epistemikoarekin orekatu beharko genuke. *Egiten jakin* ezagutza profesionala beharrezkoa dugu euskararen sustapena ezagutza terminotan legitimatzeko, baina, aldi berean, ezagutza epistemikoa, alegia, gizarte eraldaketak sakonean dituen oinarritzko kodizeen ezagutza, funtsezkoa-

goa zaigu oraindik. Labur esanda, teknikoki bikain arituta ere, zertan ari garen jakin beharko genuke, horren sakoneko inplikazioak ezagutza aldetik. Kulturartekotasunak, eleaniztasunak, adimen artifizialak, gaur egungo auzien interpretazioek gure hizkuntzaren historia kulturalean dute oinarria, eta marko egokitik aztertu eta kudeatu behar ditugu. Nago berrikuntza soziolinguistikoa aldarrikatzeak batzuetan oinarrien ezezagutza erakusten duela. Kultur transmisioan dugun gabeziak bereziki zailtzen digu aurreko belaunaldien legatuaren jabe izatea. 56ko belaunaldia ezin da deskatalogatu, ez eta mende hasierako belaunaldia ere. Teknikariek hori guztia berreskuratzeko bidea izan liteke derrigorezko bihurtzea arloko gorputz teknikoaren oposizioetan.

Horregatik proposatu nahiko nuke, hizkuntz eskakizunak nola, kultur eskakizunak ere ezarri beharko genituzkeela euskal hezkuntza sistemako irakasle, administrazioako euskara teknikari zein euskal irrati-telebistan funtzio publikoan arituko diren profesionalentzat. Oposizioetako gaitetietan Azurmendiren zenbait testu nahitaezko izango lirateke, eta proba praktikoen artean testu horien iruzkina egin dadila eska genezake.

Ideologikoa dela pentsatuko du baten batek, eta horri erantzun beharko genioke funtzio publikoa bera dela ideologikoa. Ilustrazioaren amarruak erakutsi zizkigun Azurmendik, eta berme osoz erabil dezakegu haren markoa *demos*-aren izenean. Gizartea eraldatzea bada euskararen profesionalon zeregina, ez dirudi epistemologia sobran dugunik. Faltsua da pentsatzea gazte belaunaldia euskalduna izanik dena eginda dagoela, gainera; gaur inoiz baino gehiago, irizpidea izateak dakar bermea, eta irizpidea landu egin behar da, ez da berez eraikitzen eraldatu nahi ditugun gizarte baldintza hauetan.

Agian ez dugu guk, nire irakasleak bezala, ama galdu, baina euskararen sustapenaren atearen sarrailari herdoila antzematen diogu; giltza gozatzeko estrategiak behar ditugu ate zaharrean. «Guretzat (izkuntza) mimetismoa ez da batere azaleko ta bai oso arriskutsu. Kezkatzen gaituen prolema mingarria», idatzi zuen Azurmendik 1964an.

Azurmendiren oinarritzko ezagutza-ekarpena nazioartekoa eta guztiz zorrotza da. Beti etxera bueltan opariekin datorren bidaiari intelektual izan da. Gure ogia eroatera edo irabaztera goazenean, ireki diezaiozun atea, arren, lan intelektual horri, euskararen profesionalak ez dezala etxeko atea beste okindegi batzuekin nahas. Oposizioa eta lehiaketa beste nonbaiten kokatu beharrean gara.